


ttipi-ttapa

1991.eko Urriak 24

72. zenbakia

dohain banatzen da



SARAKO ARNOGILEAK



- ALUMINIO AROZTEGIA
- BURDIN AROZTEGIA
- ATE AUTOMATIZAZIOA

Santiago 71
Tfnoa: 580166
ELIZONDO

9. Margo Leihaketa haize zabalean

1991ko Azaroaren 10an

OINARRIAK

1.- 16 urtetik gorakoak diren artista guziak parte har dezakete

2.- Goizeko 8.30etatik aurrera seinatuko dira lienzoak. Gure-Txokoako erakusketa aretoan. Egindako lanak eguerdiko 2ak baino lehenago entregatu behar dira.

3.- Lanak aire librean eta Berako udalerrri barruan egin behar dira. oleoa izanik erabilitako teknika.

4.- Lehiaketaren erabakia antolatzaileek aukeratu-tako epaileen eskuetan gelditzen da.

5.- Lehiaketaren egun berean eta arratsaldeko 6etan banatuko dira sariak (Gure-Txokoa elkartearen).

6.- Jendeak ikus ditzan egindako lanak, leihaketa-ren egunetik antzinerara, hauek 8 egun egongo dira Gure Txokoako erakusketa aretoan.

7.- Erakusketa amaitu bezain laister 15 egun daude lanen bilketa egiteko. Epe honen barruan biltzen ez direnak Gure Txokoaren esku geldituko dira. Lehenengo hiru sarituak Gure Txokoaren eskuetan geldituko dira. Kontsultak egiteko: 63 09 30 eta 63 11 29

8. 1. saria, 60.000 pzta; 2. saria, 40.000 pzta. eta 3. saria 30.000 pzta.

9.- Leihaketa honetan parte hartzen duen guztiak oinarri hauek onartu behar dituzte erreserbarik gabe.

Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi
Gibel-gizena
Urdai azpikoa
Ahate-hegalak
Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIARAKO AHATERIK HOBERENA

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Sarako arnogintza: Belaunaldiz belau- naldi pasatutako ohidura zaharra"
Aitor Arozena
-
- 26 ELKARRIZKETA:** "Lurraren Eguna, beratar guziak hebena bezala hartzen duten besta da gaur" dio Bittori Telletxeak Urriaren 27ko ospakizunari begira.
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Mikel Mindegia txapeldun Nafarroako aizkola- rien artean".
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopere-rena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Patxi Petirena, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu, Eusko Jaurilaritza....

Inprimategia: Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdia).....(943)464622

Doneztebe (larrialdia).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarar515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Urriaren 26-27an**, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Azaroaren 1ean** Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Azaroaren 2-3an**, Arantza, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

Deialdiak

► **ETXALAR**, Urriaren 24ean, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, Azaroaren 4ean, arratsalde-

ko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

Dantzaldiak

► **LESAKA**, Urriaren 27an, arratsaldeko 7,30etan BASAKABI taldearekin.

Ferriak

► **ELIZONDO**, Urriaren 25 - 26an, behi feria, pilota partidoak eta musika jaialdiak.

Ekitaldiak**IGANTZI****KULTUR EGUNAK**

Urriaren 31an, arratsaldeko 5,30etan "Goonietarrak" filmea haurrentzat. 8etan diapositiba emanaldia.

Azaroaren 1ean, 8,30etan, "Ander eta Yul" filmea.

Azaroaren 2an, 8,30etan musika auktotoñoaren emanaldia.

Azaroaren 3an, 11etan hau pilota partidoak, 12,30etan antzerkia eta 2,30tik 6,30etara gaztelu haizatuak, etabar haurrentzat.

Bota bertsoa**Xabier ERKIZIA****Gaia:** Nafarroa Oinez**Doinua:** Hamarreko haundia

Nafarroako euskaldun besta hogeian zen gerturatu ezinezkoa holako besta joan gabe ezin pasatu larunbatean rock kontzertua nahi zuenantzat dantzatu mahaiurrekoa ona izan ta hurrengo ez pentsatu

Igande goizez martxan jarri zan jendez betetzen hiria ailetu ziran dantzari eta musikarien taldia egunan zehar euskaldun besta bihurtu zen ba guria aurtengoan bai portatu zara primeran Atarrabia.

AGENDA

Leihaketa k

BERA

IX. MARGO LEHIAKE-TA AIRE LIBREAN

Noiz: Azaroaren 10ean. 16 urtetik gorako euskal artistentzat zabalik.

Informazioa: 630930 eta 631129 telefonoetan.

LESAKA

I. ARGAZKI LEHIAKETA

Antolatzaile: Beti Gazte elkarte

Gaia: Kirola.

Epea: Azaroak 10.

Argazkiak txuri-beltzean edo koloretan, nahi den tamainan baino 30x40 zmko. kartulina batean jarrita (bakoitzak gehienez 3 argazki).

Bidalketak: Beti Gazte elkarte. Beheko plaza 9, 31770 LESAKA.

Sariak: 1.: 10.000 pzta. eta trofeoa. 2.: 5.000 pzta. eta trofeoa. Sari berezia: 15.000 pzta eta trofeoak Beti Gazterekin zerikusia duen onenari.

Gastronomia

EUSKAL PASTELA

Osagaiak

8 lagunendako:

350 gr. irin, 300 gr. azukre, 200 gr. gurin, 4 gorringo, arraultze bat, limoi axala rallatua, gatza pixka bat, lebadura kutxarila bat, ron pixka bat eta 1/2 l. esne. Irin multzo baten erdian zulo bat egin eta barrenean gainontzeko guztia paratu. Nahasi erdian dagoena eta



Felisa Irungaraik emana
MENDIALDEJatetxea - AMAIUR

gero irina pixkanaka. Ongi nahasia dagoenean utzi ordu

bat. Bitartean krema eginen dugu, esnea epeltzen jarri limoi pixka batekin. Bertze ontzi batean azukrea eta gorringoa nahasi. Honi irina erantsiko diogu poliki grumorik atera ez dadin eta ondoren esnea, sura eraman nahasiz ongi loditu arte. Masa erdia hartu eta rodillo batekin zabaldu eta moldean jarri. Gainean krema botako diogu eta ondoren bertze masa erdia. Labean sartu 200^a eta 45' ondoren egina.

Baserriko feria



ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.100 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 150 pzta/kilo **Urdamak:** 60-80 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....550
1.koa.....520
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....530
2.koa.....500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkatzen idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 23.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 35.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

MOBLEAK
A METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera joanen gara.

Konpromisorik gabe!!

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



Juan Meoki
Iruritako enpresarioa

- ▶ **Lana fabrika batetan ala zure kontura?** Neure kontura.
- ▶ **Jefea gainetik ala zeu jefea?** Jefea bai baina besteetatik ikasiz.
- ▶ **Dendako lana ala kanpoko?** Kanpoko.
- ▶ **Jendea ezagutu ala etxean geratu?** Jendea ezagutu.
- ▶ **Besta ala lana?** Biak, erresponsabilitatearekin.
- ▶ **Publizitate konbentzionala ala be-
rezia?** Nik egina.
- ▶ **Bazkari on bat ala pilota partidu on
bat?** Ongi bazkaldu ondoren pilota partidua
- ▶ **Musa ala lagunekin solasa?** Lagunekin solasean, musa.
- ▶ **Baztanen turistak ala baserritarrak?** Biek, Baztanek bizitzeko.
- ▶ **Periodikoak ala telebista?** Periodikoak.
- ▶ **Periodikoetan, kirolak ala bertze orrialdeak?** Dena leitzen dut.



- ▶ **Dire Straits**
- ▶ **U2**

Aurtengo lehen hotzak hasi direnez, neguan salduko dizkiguten materiala prestatzen ari zaizkigu marketing gizonak.

Musika alde-
tik nabarmene-
nak; Dire Straits
et U2-ren diska
berriak izanen
ditugu euren Eu-
ropako birekin.
Hirugarren diska
famatua Bruce

Springsteen-ena
izanen dugu bai-
na hiruek batean
ateratzea komer-
zialki egokia ez
denez, itxo-
in egiten dute biz-
pahiru hilabete,
hau da, eguberri
inguru arte.
"Dire Straits"en
azken lana,
«*Brothers in
Arms*» seigarren
diska izan zen,
nahiz eta gero
«*Alchemy*» erre-
kopilazioa ateri
zuzenean graba-



tua.
Gure ustez
talde honek eman
behar zuen ge-
hiena edo guztia
emana du, horre-
gatik azken dis-
ka hau entzun
ondoren ez digu
gauza haundirik
adierazi.
U2 buruz
misterio gehiago
dago: oraindik ez
dakite noiz aur-
keztuko duten
azken diska, bai-
na piratak saltzen
hasi dira entsaio-

etan grabatutako
tema batzu. Dis-
ka doblea izanen
omen da eta
"Achtung Baby"
izena.

I r l a n d a r
hauek, lan on eta
rock folk eta
blues gordinki
ongi nahastuak
eskeini zizkigu-
ten Bonoren a-
hots mistikoaren
laguntzarekin
batez ere azken
bi disketan.

MARIANO



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Alzate 28 - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA

HONTAZ ETA HARTAZ



Haurdun dauden Malerrekako emakumeek amatasunerako prestaketa egin nahi izanez gero, Osasun zentrorra dei dezakete beraien datuak emanez. Osasun zentruko telefonoa, 45 03 00. Prestaketa 7-8 klasetan eginen da, bakoitzean teoria, gimnasia, arnasketak eta erlajazioari ekinen diotelarik.



Elizondoko feria burutuko da hilaren 25 eta 26ean. Urtero urtero bezala azienda ugari ikusteko aukera izanen dugu, aspadiko eza-gunekin batera.

Beintza-Labaien eta Saldiasako Udalak azaroaren 3an osatuko dira

Maiatzan ez zen kandidaturarik aurkeztu



Maiatzaren 26an burututako Udal-hauteskundeetan botua nori eman izan ez zuten herriek, azaroaren 3an izan dute behingoz modua, bertako Udala nork zuzenduko duen aukeratzeko. Gure eskualdean bi dira kasu honetan daudenak; Saldias eta Beintza-Labaiengo udalak, hain zuzen ere. Bi herri hauean, nolana ere, ez dute buru-hauste haundirik

izanen bozketa egunean. Izan ere, kandidatura bakarra aurkeztuko da bai Saldiasen eta baita Beintzan.

Dena dela, hauexek dira beraz, herriotako alkategaiak: Pedro Urrutia Gragirena Saldiasako kasuan, orain arte urtetan alkate izan dena; Beintza-Labaienen aldiz, Francisco Jabier Bertiz Eratsun da Herriko Taldea izeneko kandidaturaren buru.

INFORMAZIOA:

- 📎 Nominak
- 📎 Aseguro Sozialak
- 📎 Lan-kontratu bonifikatuak
- 📎 Enpresa berrien sortzea
- 📎 Diru-laguntzak
- 📎 Errenta Deklarazioak
- 📎 Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



IRAKURLEAK MINTZO

NOIZ ARTE EGOERA HONETAN?

Igantzioko bestak ezkeroz egun batzuk joan diren arren, bizirik irauten du nigan orduan sortutako amorruak. Egia erran aurten zezanak barreraren bertze alde tik ikustea egokitu zait, aspalditxoko partez. Baina horrek ez dit ahaztu erazi zenbat eta zenbat kezka eta lan ematen duen Igantziokoak bezalako besta bazu ren prestaketak.

Asuntza da,

onartezina dela gazte talde batek hainbertze hilabetez lan egin ondok, prestatutako programaren erdia eguraldiarengatik pikutara joaten dela ikustea. Eguraldia ezin izanen dugu aldatu, noski, baina ez al du merezi Igantzi bezalako herri batek leku estali bat?

Oroitzen naiz zer nolako egonezina sentitu nuen kirole-tako zinegotzi nintzela, Berako udalera joan eta bertako zinegotzietan orain egiten ari diren poli-

kiroldegiaren berri eman zigutelarik. Justifikazioa: Bortziritako 8.000 biztanleen erabilerrako. Mesedez, pentsatu nuen zertarako dugu igantziarrok Berako polikiroldegia Igantzi ez badugu minimorik ere betetzen. Berako polikiroldegia %99an beratarren erabilerrako izanen da noski, beratarren bizi maila pixka bat gehixeago igotzeko, eskola, kontserbatorioa eta abarrekin gertatzen den beza-

la. Bitartean Igantzin, gora begira jarraituko dugu ea zerbait antolatzen denean goikoa portatzen zaigun Pilotaleku estalia ez da pilotan aritzeko lekua soilik, herri bati bizia emateko lekua baizik, behar beharrezkoa beraz. Hori lortu ondok egin ditzagun nahi diren polikiroldegiak, piszina olinpikoak...

Dena den, garbi utz dezadan nere protestatxo hau ez dela inola ere ez beratarren ez bertako

inoren aurkakoa, Nafarroako gobernuak orain arte kirol azpiegiturretan eraman duen politikaren aurka baizik. Ez zait aberastasun banaketa justua iruditzen, bertzerik gabe. **Igantzi ez zaio pilotalekurik tokatzen, diote.**

Has gaitezen lanean honen aurka, **ORAIN.**



Oskar Txoperena

Ostatu
Jatetxea



- Eguneko menuak
- Kazuelak eta pintxoak

BETI - JAI

Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA



BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“Kultur Egunak” burutzen ari dira hilabete honetan

Datorren igandean “V. Lurraren Eguna” ospatuko da

ROMAN HARRIBILAGA

Urriko hilabete honetan barrena garatzeko “Kultur Egunak” izeneko egitaraua ari da burutzen. Berorrek, egintza ugari biltzen ditu barruan, erakunde eta elkarte zenbaitek antolatuak, hala nola, Udal Kultur Batzordea, Berako Euskara Batzordea, Gure Txokoa elkarte, TTPI - TTAPA aldizkaria eta Berako OHO ikastetxeetako guraso elkarteek, Berako Udala eta Nafarroako Gobernuaren babesaz.

Datozen egintzak

Dagoeneko zenbait aktibitate burututa badaude ere, oraindik ugari dira egin gabe. Era honetan, urriaren 24ean, ortzegunez, Iñaki Munita naturopatak “Gizakiaren bide espiritualak” hitzaldia eskeinitako du arratsaldeko 7etan, Jamotenean. Biharamonean eta azaroaren 3a bitarte zuhaitz ikusgarriak buruzko argazki erakusketak zabalduko da Kultur Etxean. Leku eta egun berean, arratskeo 10etan, Ipar



Amador Lanz-en oleoak Madrilen ikusgai

Bere lanaren hirugarren erakusketa zabaldu du Urriaren 8an Amador Lanz-ek Madrilgo Sokoia galerian. 37 oleo daude ikusgai datorren Urriaren 29ra arte. Euskal Herriko eta Errioxako alderdiak dira gehien bat aurkeztutako gaiak.



Independentziaren aldeko murala pintatzeagatik detenituak izan ziren Berako 7 gazte

Euskal Herriko «Bordaxuri» taldeak antzerki saio bat emanen du “Berantenaz

seiretan” lanarekin.

Urriaren 26an, larunbatez, “VII. Bertso pa-

per lehiaketa”n hautatutako lan hobereenen egileen artean sari banaketa egingen da, arratsaldeko 6etan Jamotenean. Ondoren, gauerdiko 12etan, Alzateko frontoian jaialdia ospatuko da Izan musika taldearen eskutik.

Igandean, “V. Lurraren Eguna”ren barnean, artisautza eta fruitu eta barazki erakusketak, gasna lehiaketa, sokatira proba eta trikitixa soinu izanen dira.

7 detenitu

Eztegara frontoiaren paretan “Independentzia” zioen murala pintatzen ari zirela eta Udal-baimenik gabe egiten zutelaren aitakiz, 7 beratar detenitu zituen urriaren 9an Goardia Zibilak, koartelera eramanez guztiak. Hemendik Herriko Etxera deitu zuten goardia zibilek baimena ote zeukaten galdetuz; Alkateak baietz erantzun zienean ordu erdi bat geroago libre utzi zituzten atxilotuak. Bertzalde, margotzeko materiala konfiskaturik gelditu zen koartelean.

B RADIO BIDASOA
expert
Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77
BERA

**3 urtetarako garantia eta
36 hilabete ordaintzeko.
Nork eskeintzen du gehiago?**

LESAKA

IV. Dantzari Txiki Eguna arrakastatsua suertatu zen

Irain Dantza Taldeak antolatutako ekitaldian 270 bat dantzarik parte hartu zuten

AITOR AROZENA

Irain Dantza Taldeak antolatutako IV. Dantzari Txiki Eguna arrakasta haundiz ospatu zen hilaren 13an, Hego Euskal Herriko zortzi talderen parte hartzearekin. Hauek, Lesakako Irain eta Tantirumairu dantza taldeak, Goizuetako Umore Ona, Doneztebeko dantzariak, Berrizko Iremiñe dantza taldea, Oñatiko Oñatz dantza taldea, Amurrioko Aiala dantza taldea eta Behobiako dantza taldea izan ziren guztira 270 bat dantzari bildu zirelarik.

Goizetik, talde guztiak ibilbide ezberdinak egin zituzten herrian zehar beraien dantzak eskeiniz eta Plaza Zaharrean bukatuz itzulia, dantza emanaldi batekin. Irain Dantza taldekoek, berriz, «Zubigainekoa» dantzatu zuten Onin errekaaren pertiletan.



«Zubigainekoa» ikusteko aukera izan genuen... Urriaren 13an

Bazkariaren ondoren, talde guztiak herriko frontoian bildu ziren, dantza ikuskizun ederra emanaz. Lehen dantza, «Agintarienta» talde guztiak batera dantzatu zuten, ikurriñak partaide guzien gaintetik zebiltzaten bitartean.

Ondoren, talde bakoitzak bere emanaldia eskeini zuen, Irain eskolakoak hasiz eta Tantirumairu ikastolakoak bukatuz.

Laminaciones-en huelga

Barakaldoko egoitza zentralaren ixtearen kontra eta AHV osoan emanen den enplegu erregulazio espedientea dela eta 24 orduko huelga edo lan geldialdia burutu zuten Urriaren 18an «Laminaciones de Lesaka, S.A.» enpresako langileek.

Erregulazio hau 236

langilek jasan beharko lukete Laminaciones-en, 218k euren jardunaldia heren batera guttituz 6 hilabetez eta bertze 18ak denbora berean kontratua etenez. Sindikato guztiak neurri hauen kontra daude.

W ttipi-flash

□ **Beti Gazte** elkartearen 50. urteurrena dela eta, I. Argazki lehiaketa antolatu da, lanak aurkezteko epea Azaroaren 10ean bukatzen delarik. Xehetasun gehiago agenda orrietan.

□ **Eraiki, S.L.** enpresak burutuko du Izotzaldea auzorako ur eramatea eta banatzea.

□ **Nafarroako** Unibertsitate publikora joateko zonaldeko garraio publikorik ez izatean ematen den marginazioa salatu du Udalak Nafarroako Gobernua aintzinean.

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

ONIN
Agentzia

Albistur 53

Tfnoa: 637359

LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

KAMINERO

OSTATUA

Behoko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

Endarlatsako istripuan bortz herritar zauritu

Bertzalde, independentziaren aldeko mozioa onartu zuen Udalbatzak

PELLO APEZETXEA

Endarlatsa inguruan bertze kotxea gainera etorri zitzaieela eta, bortz herritar zoritxarrak harrapatu zituen; bat, Esperantza Agirre, bizia galtzeraino; Danborieneko Pepita eta bere alaba zaurituak, Iarriena lehenbizikoa. Mari-migeleneko Tere Berrueta kolpatua suertatu bazen, bere haurrak besoa eta hankak xeheituak ditu.

Su egurra eskatzeko egunak

Su egurraren lotea eskatzeko epea, urriaren azkenera artekoa da, eskatzerakoan 500 pzta. ordainduz.

Udala independentziaren alde

Hainbat herritan bezala, Etxalarko Udalak onetsi egin du Herri Batasunak presentatutako deklarazioa, laburtuz, honako hau



Udazkena argia laburtu eta hotza luzatu ari denan, negurako egurra ate ondoan pilatuz gero, lasai egoteko bidea bada.

dioena: «Euskal Herriak badu eskubidea bere buruaz erabakitzeke, zer eta nola nahi duen bere bizitza antolatu; bertze modura erranez, autodeterminatzeko eskubidea. Euskal Herriaren independentziaren alde gaude. Berriki independentzia lortu dutenei elkartasuna agertu nahi diegu». Bototara jo zenean, Herri Taldeko lauak alde-

koak izan ziren, Eusko Alkartasunakoak botorik eman gabe geldituz.

Berriz ere maestra aldaketa

Haurrek ikasturtea hasirik hilabetea bertzerik ez dutenean, irailean etorritako maestra berria badoa. Ordezkoa noiz etorriko den zain gauden honetan, zenbat denborarako etorriko

ote den galdetzen gabiltza. Guraso Elkarteak bilera burutu du gaia ukituz. Gurasoak kezkatuak daude, izan ere, irakasle aldaketa horiek haurrei dakarkioten kalteagatik, eta Iruñera igorriko dute, behar bada, idazkiren bat. Ikasturte barnean ez lukeela aldaketarik gertatu behar uste dute, halabeharrez ez bada. Hori, ordea, maestru-maestren eskuetan baino gehiago Iruñeko agintarientan dago, eskoletako legedi desegokian. ТТИП-ТТАПА hau etxeataratu orduko konponketaren bat gauzatua izanen da, agian.

Irailaren 2ko erauntsiak bideetan egindako kalteak konpontzeko, laguntza eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari.

Kobratu ezinik dau-den kontuak ordainerazteko «agente ejekutiboa» hartu du Udalak.

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

GOZOTEGI - JAIONE



ITZEA 3, 630786 - BERA

KLOXKA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

IGANTZI

Kultur Egunak burutuko dira asteburu honetan

Urriaren 31tik Azaroaren 3ra, Euskara Batzordeak antolatuturik

OSKAR TXOPERENA

Urriaren 31an hasi eta azaroaren 3a arte izanen dira Igantziko kultur egunak. Euskara Batzordetik sortu zen ideia eta udalaren laguntzaz eramango da aintzinera. Hauxe izanen da egitaraua: Urriak 31, 5,30etan, haurrentzat "Goonietarrak" pelikula. 8tan diapositiba emanaldia. Azaroaren 1ean, 8,30etan "Ander eta Yul" pelikula. Azaroaren 2an, 8,30etan musika autoktonoaren emanaldia. Azaroaren 3an,



goizeko 11etan haur pilota partidoak. 12,30etan antzerkia frontoian eta 2,30tik 6,30etara gaztelu haizatuak

etabar haurrentzat.

Gertakizun larria

Urriaren 16 eta 17aren arteko gauean apuru ede-

rra pasatu behar izan zuen Igantziko Bentetako famili batek. Goizeko 3ak aldera atera deitu omen zuten. Barrutik begiratu zutenean harrিতa geratu omen ziren pistola eta labana zera-mazkien gizon bat ikusi zutenean ordu erdi luzez goardia zibilak etorri bitartean etxeari bueltaka ibili omen zen nonbaitetik sartu nahirik, atek joka. Detenitu ondotik goardia zibilak denuntzia bat aurkezten ez bazuten inola ere ez zezaketela gartzeleratu erran zieten.

ARANTZA

Antzerkia eta folklorea Udazkeneko Jira Biraren barnean


"Goizuetan bazen..." antzestuko dute goizuetarrak Azaroaren 2an

JON LARRETXEKA

Nafar Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Jira-biran bi eginkizun ditu herrian egiteko antolatutak.

Alde batetik, Goizuetar antzerki taldeak "Goizuetan bazen..." obra antzestuko du Azaroaren 3an arratsaldeko 5etan. Obra interesgarria izanen da, aspaldiko pertsonai bati buruz bait da, "Trabuko" Arantzako emakume batekin ezkondua eta Arantza eta Goizuetan arteko mendietan bizi zena.

Bestalde, Azaroaren 17an, Ortzadar folklore



Frontoia estaltzeko lanak 8 hilabetetan bukatu beharko dira

taldea izanen dugu, eguerdiko 12etan.

Frontoia estaltzen

Urriaren 8an egin zen su-

bastan, Ignacio Telletxeak bakarrik presentatu zuen frontoiaren estaltze lanetarako aurrekontua. Hau,

44.523.871 pezetatakoa da, beraz 110.000 pezetetan jeitsi zuen hasiera batean atera zen kopurutik.

Beraz, 44.523.871 pezetetan egingo dire estaltzeko lanak, horretarako 8 hilabete epea izango duelarik, Urriaren 8tik kontatzen hasi eta.

Idazkari berria

Ixabel Agerreta izanen dugu hemendik aurrera herriko idazkaria, berak lortu bait zuen lanpostu hori joan zen astelehenean egin ziren azterketetan. Isabel Agerreta Iruñakoa da eta 23 urte ditu.

Euskal Herriaren independentziaz, EAren mozioa onartu

Sunbilla izenaren erranahia argitu nahi

PATXI PETRIRENA

Bi mozio aurkeztu ziren Urriaren 4eko plenoan Euskal Herriaren independentziaz, HBrena eta EArena.

Lehenbizikoaren aurka eman zuten botua EAko zinegotziek, ondoren berena aurkeztuz. Hau onartu zen bortz zinegotzien botuekin, HBkoek adieraziz ados zeudela puntu batean ezik, biolentzia aipatzen zen puntuan hain zuzen.

Botazioaren ondoren, HBko Iriartek erran zuten penagarria dela abertzale guzieren intereseko gai honetan adostasunik egotea. EAko Arriolak, berriz,



1526ko dokumentu batean Sunbil izena agertzen omen da Diputazioko artxiboetan

adierazi zuen ez duela uste gai honek sunbildarrak bereziki kezkatzen dituenik

Sunbilla izenaz

Herriaren berezko izena eta bere erranahia argitu

gabe dagoenez, Euskaltzaindiari kontseilua eskatzea erabaki zuen Udalak.

Idazkariak aipatu zuen Diputazioko artxiboetan 1526ko dokumentu batean

Sunbil agertzen dela. J.I. Mariezkurrenak Usunbil ez ote daitekeen izan adierazi zuen.

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Lokalak alokatzen dira.
Lesakako **EROSLE**
dendaren ondoan

Tfnoa: 637 404
(Josetxo)

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

PATXI ITURBIDE, Moto Derbi irabazle suertatu zen Euskal Herriko **EROSLE** en artean Irailan egindako zozketan



EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264

ITUREN

Udalak independentzia aldarrikatu zuen

TTIPI - TTAPA aldizkariaren aldeko mozioa ere onartu zen

IBAN ISASI

Urriaren 5eko udalbatzarrek eta eguneko puntuetatik kanpo HBk aurkeztutako mozioa onartu zuen EAren 4 boto eta HBrenarekin. Aprobaturako mozioak hurrengoak dira, independentzia autodeterminazioaren bidez lortu behar dela, munduko herri guztiek independentzia lortzeko eskubidea dutela eta batez ere Euskalerriak estatu subirano izateko.

Makilipurdiren enkantea

Subasta edo enkante honetan 136 zuhaitz daude,



Ituren ere Euskalerriaren independentziaren alde agertu da

baina bi ustezko jabeek 36 arbol edo zuhaitz eskatzen dituzte. Ustezko jabe hauek katastroan komunal bezala agertzen diren zuhaitzak eskatzen dituzte eskritura batzuk gehituz.

Kontarren bilketa

Zenbait eskeintza aztertutik ondotik Hibaia Elkarte Anonimoari eman zaio Bortzirriak, Malerreka, Baztan eta Bertizaranako kontar bilketa, kontenedo-

re garbiketa... lanak.

Euskara Zerbitzua

Aditzera eman zen baita ere Nafarroako Gobernuak zerbitzu honentzat ematen duen subentzioaz gain gure eskualdeari 615.000 pezeta ordaitzea suertatzen zaiola. Hau kontutan hartuz Itureneri % 8,9a ordaintzea suertatzen zaio (54 - 55.000 pzta inguru urtean).

Gudari eguna

Irailaren 27an Euskalerri osoan eta Iturenen urtero urtero egiten den bezala Gudari Eguna ospatu zen. Herrian, 50 lagun bat elkartu ziren Euskalerriagatik hildako gudariei omenaldia egiteko.


BEATRIZ
ILEAPAINDEGIA
 San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- Solarium-a
- Ileapaindegirako produktuen salmenta
- Ordua eskatu

Nerea *Oinetakoak*
 San Miguel 2, DONEZTEBE

ARROPA ETA OPARI DENDA

 Tfnoa: 451540
 Mercaderes 9
 DONEZTEBE

zintetaren *Udazkeneko moda*
Estilo propioz egindako arropak

ARROPAK
 San Migel auzoa 27,
 45 08 83 - DONEZTEBE

TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
 ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

SANTAMARIA
Jatetxea
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan
 Eguneroko menua eta karta
 Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



NORFRES lantegi berria irekitzear

Oraingoz hogeigangile hasiko dira

TXEMA ALDABE

Azaroaren hasieran irekiko da azkenik klase ezberdinetako arrainak izoztu eta saltzeko elaboratze lanak eginen dituen lantegia. Norfres sortzeko, garai bateko Iluro lantegia moldatu eta bere ondoan itxekirik bertze eraikuntza berria egin behar izan dute. Oraingoz Malerrekatik 10 langile hasiko dira lanean, Industri Mankomunitatean dauden 10 herrietatik bana. Gainontzekoak, tekniko eta administrariak, lantegiak berak jarriko ditu. Epe laburrera, 30-35 langile izatera pasatzea da euren asmoa.



Arrain mota ezberdinak izoztuko dira merkatuko eskariaren arabera. Arrain fileteak, bakailua, bonitoa, txipiroiak, plater prestatuak etabar. Arrainak Irundik ekarriko dituzte eta

baliteke Vigotik ere. Bertzalde, produktuak bertan saltzeko denda ez da oraindik irekiko. Kongelatuen salmenta banatzaileen birtartez eginen dute estatuko iparraldean batipat.

Sauna-denda naturista berria

ireki da berriki Doneztebe. Bertan, elikagai naturalak, mediku-naturista kontsulta, sendabelarrak... izanen dira. Aurpegi-azalaren analisiak dohainik egiten dituzte. Honetaz gain, sauna eta zelulitisa, stressa etabarrendako masaiak har daitezke.

Azaroaren Iean zinea martxan. Besta egunetan bi emanaldi arratsaldeko 5etan eta 8etan eta larunbatetan, gaueko 10.30etan. Azaroaren 1, 2 eta 3an "Pretty Woman" filmea eskeiniko da. Pelikula guziak nolana, erdaraz izanen dira.

ITXASO JATETXEA

Menua eta Karta

Ibardingo Gaina - BERA



- ✳ Industri higiena
- ✳ Sanitatea
- ✳ Arratoientzako pozoia
- ✳ Desinfekzioa
- ✳ Insektuentzat pozoia

Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA

Hoberena
ostalarietzarako
produktuen garbiketarako

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA



Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino nerretako gaur hobiago.

DONAMARIA

Dantza emanaldia burutu zen Urriaren 6an

SARA eta NATALIA

Urriaren 6an, Donamari-ko pilota-lekuan eta eguraldi ederrarekin, eguerdiko 12etatik aintzina dantzariak izan genituen. Jakina izanen duzue, "Udazkeneko Jira-Bira" egiten ari direla. Dantzari hauek, Iruñako Oberena taldekoak ziren.

Nahiz eta jende aunitz ez bildu, giro ona egon zen,

batez ere herriko mutil pila bat atera zituztenean, neskatxa polit eta eder batzuk. Benetan liluragarria izan zen. Erran beharra dago, neska dantzarien aurrean ongi geratu zirela gure mutilak. Ikuslegoa ere pozik gelditu zen.

Urriaren 19an berriz, arratsaldeko 7etan "Irian sarturik" antzerki lana eskeini ziguten Ilargi taldekoek.



ZUBIETA

Berri emaileen egoera

JUAINAS

Aspaldi honetan Zubietako berririk inork bidaltzen ez duenez, momentuz, nik neuk idaztea erabaki dut. Dena dela, badirudi kontua behin-behinekoa dela. Alde batetik, edozeinek bidaltzen ahal dituelako eta bertzenaz, noizbe-

hinka norbaitek bidali nahiko balitu, eginen diogu lekurik. Gainera, badirudi gaztetxo horiek alfabetatze klasetan hasi behar dutela, behintzat taldea osatzen bada. Hortik etorriko zaigu segida, espero dugu.

Eta ikastaro aferetan gaudenez, aipatu beharko dira baita, jostunak, ohiz-

ko ikastaroa prestatzen ari direla eta sukaldaritzakoa ere antolatu nahi dela, sukalderik lortzen bada.

Badira bertzelako gauzarik ere bainan momentuz hurrengorako utziko ditugu onddoak, usoak...

A! Gau-pasa izugarri ongi atera zen, nik bederen ikaragarri ongi pasa nuen!



Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUNA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

Saratar gazteak Uztaritzen, Lapurtarren Biltzarrean

Elizanbururen kantu bildumaren aurkezpena egin zen elizan 800 ikusleren aintzinean

OLHAIN ELKARTEA

Urriaren 6an iragan zen aurtengo Lapurtarren Biltzarra Uztaritzen. Lehen aldikotz Sarako herriak parte hartu zuen ekitaldi honetan gazteriaren bitartez. Hauek osatua zuten karroak errelista izan omen zuen. Besta giroan eta humore onean salatzen zuten Frantziako justiziaren asti hartzea eta preso ezin jasana. Denbora berean, mezperan Parisetik itzulia zen Bixente Garcia presoari egin zioten beren gisako ongi etorria.

Elizanbururen urratsetan

Joan den larunbatean, zortzirehun bat entzuleren



Errekista izan omen zuen Sarako gazteek osatutako karroak Lapurtarren Biltzarrean

aurrean ospatu zen Elizanbururen kantu bildumaren aurkezpena. Oren bat t'erdiz entzun ahal izan genituen kantu eta ahots mirregarri asko. Kantaldi hau izan da emanaldi bakarra eta antolakuntzan parte

hartu dute bai Euskal Kultur Erakundeak, Herriko Etxeak, Olhain elkarteak baita ere Kultur Bideetan Euskal gobernuko erakundeak. Lehen aldia da holako ekintza batean hainbertze kantarik parte har-

tzen dutela. Oraitik goiti aurki daitezke diska, kazeta eta konpaktoa salgai, Saran Goyenetxe Dendan, Vello tabako bulegoan eta Herriko Etxeko Edantegian, eta Zabal dendan Baionan.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

ALICIA

JANARIDENDA

Foruen Plaza 6, tfnoa: 630799

BERA

Zure publizitatea 4.600
etxetara zabaldu nahi
baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiaïn

SARA - LAPURDI



trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- ◆ Makrame
- ◆ Tridimensional
- ◆ Saskigintza
- ◆ Telar
- ◆ Eskaiola margotu
- ◆ "miga de pan"

Leitzako industrialde berria kili-kolo dago

Hilabete bukaeran jakinen da Gobernuak bere aurrekontuetan sartzen ote duen

ANTTON ERKIZIA

Hamaika hitz, bilera eta buelta eman da Leitzako industrialde edo "poligono industrial" berriaren alde. Zonalde hontako geroari begira, bere guztizko garrantzia izan dezake proiektu horrek. Herri barruan dauden lau edo bost industri txiki eta tailerrak hor kokatzeko. Eta baita

tailer eta lantegi txiki berriak ere honuntz erakartzeko.

Azken aldi hontan, proiektua Diputazioak bere gain hartuko ote zuen ere esan da.

Naparroako Gobernu berria osatu bezain abudo, gai hortaz bilera eskatu zuen Leitzeko Udalak. Eta lehengo aste hortan bilduta

egon dira Udaletxeko komisioa eta Diputazioko J.R. Jimenez jauna, industri sailburu berria. Handik atera zenez, proiektua berriro ere geldirik dago, behingoz Sarriok bere fabrika zabaltzeko eta zein aldera zabaltzeko asmoak dituen jakin arte.

Hori jakiteko, Sarrioko zuzendaria den Lakabe eta

Manuel Diaz de Laguna jaunekin ere egonak dira ofizialki.

Inpresio orokorra: ez ote dagoen berotasun haundirik industrialde berria aurrera ateratzeko.

Hila honen bukaerako edo, jakingo dugu Leitzako industrialde berria Gobernuak bere aurrekontutan sartzen duen ala ez.

"Patxi Arrazola" kooperatibakoek auzo-batzarra izan dute


Berriki egindako bileran, aspaldiko hauts beltzaren arazoaz mintzatzeko

ANTTON ERKIZIA

"Patxi Arrazola" kooperatibako hogeitamar berrogei auzotar bildu ziren aspaldiko hauts beltzaren arazoaz mintzatzeko, eta bilera hostean jendea nahiko itxaropentsu sumatzen zen. Badirudi, azkenik "gas-ciudad" edo

"sare-gasa" delakoa ekarriko ote duten Sarri-ra, eta horrek hauts kutsaduraren arazoaz lezakelakoan daude.

Jakina denez, hauts beltz hori "dioxido de carbono" da, eta fuel-oil erreteagatik ateratzen da. Gasa errez gero, fabrikak ez luke ke hori botako.



Antton

650 leitzar bizi da Kooperatibatan (Patxi Arrazola auzoan), baina gutxitan azaltzen da argazkitan. Eta hori ere Leiza da.



Antton

Jende asko aritu zen perretxiku eta onddoak biltzen eta sailkatzen. Eta nahiko polita izan zen erakusketa. lan egin zuten guztien ohoretan doakie argazkia (denak hor agertzen ez badira ere).



Azaroak 1: Lekuan lekuko, eta garaian garaiko ospakizunak

Bortzirietako eta herriko bertsolari gazteak elkartu ziren

Bertso eskolak jarraipena izan dezan dirulaguntza eskatu du Euskara Batzordeak

ESTEBAN AROZENA

Urriaren lehen aste-buruan Bortzirietako bertsolari gazteak Goizuetara etortzeak bi helburu omen zituen, hain zuzen, hitzaldi berezi batzuen bidez aurtengo ikasturteari hasiera ematea, eta gure herriko bertso eskolakoekin harremanak sendotzea.

Ikasle eta irakasleen ustetan biak ongi baino hobekiago bete dira eta zalantzarik gabe esan dezakegu "Izkiña" tabernan botatako hainbat eta hainbat bertso zoragarrien oroipenaren gaineratik 25 bertsolari gazteen artean sortu den adiskidetasuna



Bortziriak eta Goizuetako bertsolari gazteak bildu ziren

dagoela. Lehen esperientzi hau ikusirik, hemendik aurrera ez da noski faltako era honetako ekintzak antolatzeko aitzakirik.

Bertso eskolei buruz ari

garenez aipa dezagun, iazko antzera aurten ere dirulaguntza eskaera luzatu duela Euskara Batzordeak, oraindik Diputazioaren erantzunik jaso ez delarik.

Hala ere, nola edo hala gaztetxoek bertso eskolak jarraipena izango duelakoan daude antolatzaileak.

"Kilometroak"-ri laguntza

Bere garaian, Nafarroa Oinez bezala duela aste batzuk Bergaran ospatu zen "Kilometroak - 91"ak ere jasoko du Goizuetako Udalaren dirulaguntza, 20.000 pezeta hain zuzen. Erabaki hau hartu zen pleno berean, TTIPI-TTAPAK duen interes soziala azpimarratu zuen Udalak, gutxienez iazko diru kopurua emateko eskatuz Nafar Gobernuari.

Aresoko herriak eliza oso eder eta polita du

Hala ere, denak ez dute behar bezala laguntzen hau mantentzen

JUANA MARI

Aresoarrak horrela pentsatzen dugu, eta baita kanpotik etortzen direnak. Bainan gauza guztiak bezala, zaindu eta garbitu egin behar da txukuna mantentzeko eta hementxe sortzen dira zenbait arazo. Familia bakoitzak urtean behin garbitu behar du eliza.

Horrela esanda ez du ematen zaila denik, bainan egia da ere, oso familia gutxiak kunplitzen duela

obligazio honekin.

Esan baita, «Culto eta Clero»rengatik urtean 1.000 pzta. ordaindu behar izaten dela eta hau ere oso gutxiak betezen duela. Bi gauza hoiek obligazio moralak dira eta bakoitzak bere pentsamoldearen arabera beteko ditu edo ez.


Bainan honekin batera esan beharra dago, elizaz baliatu behar dugunean (bataio, ezkontza, heriotza...) denok erabiltzen dugula eliza gure oneta-

rako, nahiz eta urte osoan ez agertu eta gogoan ez hartu obligazio moral horiek.



Elizondoko feriak 25 eta 26an

Parte hartze ona izan zen behi eta ardi azienda lehiaketan



Ongi legoke bertako produktu elaboratuak ere lekua izatea ferian,



Udalak irrati emisiorako lizentzia municipal eskatu du

JOSEBA I.

Behi-pirenaiketan sari nagusia, Gartaingo "Elizamendia"ko Jose M^o Ormarten behiari eman zitzaion. Saila honetan 18 behik parte hartu zuten. Berak irabazi zuen baita, 3-5 urteko behien saria.

Arizkungo «Bikondoa»ko zezen batek irabazi zuen zezenen saria, baita bertze bi sari. 2-3 urte arteko behiendakoa, Azpilikueta "Bizarnea"ko behiak eraman zuen.

100-200 kiloko zeko-urretan, Miguel A. Maritorenak irabazi zuen, baita

400-500 kiloen artekoena. 200-300k. artekoa eta 300-400 k. arteko sariak, aldiz, Zigako Pablo Zenoz-ek. **Arditan**, "latxa" mutur beltzetan, Azpilikueta J. Angel Mendiburuk eta Erratzuko Jesus Mariscok eraman zituzten saririk gehienak. Mutur gorrietan, Elizondoko Angel Galaregi eta Erratzuko Pedro Bengoetxearen artean banatu zituzten lehenengo sariak.

Udalak irrati emisiorako lizentzia eskatu Gobernuari

Erabaki hau, eztabaida

gogor baten ondoren hartu zen, EA, HB eta PSOeren 7 aldeko botoekin eta UBren aurkako 6rekin.

Ferriak 25 eta 26an

Mundu bat jende, saltzaileak karriketan eta... behi feria, turroia, nekazal tresnak. Dena den, ez litzateke gaizki berrikuntza-aren bat sartuko balitz. Bertako produktu elaboratuek eskapate-promozioa behar dute komertzializatzeke. Bertako haragi, esne, gasna, barazki eta fruituen atal behar luke egon. Besta giroak ere badu lekuri, pilota partiduak, musika.

ttipi-flash

□ **Artoa entsilatzeak** aparteko furia hartu du Baztan aldean. Ez da ez, pentsu merkeago bezala erabiltzeko soluzio txarra.

□ **Udal Musika** Eskolaren aurtengo aurrekontua 9.941.510 pztatakoa da.

□ **18 udal langilek** parte hartuko dute euskalduntze klasetan. Horretarako aurrekontua 1.793.190 pztatakoa da, Nafarroako Gobernuak 1.650.000 paratzen duelarik.

□ **Pilota-txapelketa** eta eskupilota ikastaroa martxan.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

Zakur bat agertu da herrian

Bertzalde, urte honetako berririk haundienetakoa: sortze bat herrian!!!

MARGARI eta KORO

Orain dela 10 bat egun zakur bat agertu zen herrian. Guk egia erran, zakurri buruz ez dugu sobera ulertzen, baina diotenez ehiziko zakurra da.

Zakur hunek izugarrizko pena ematen zuen bainan orain lagun haundiak eginak ditu, bai zakurren eta bai jendearen artean.

Lehenbiziko egunetan etxez-etxe ibiltzen zen, norek jatera emain zion, baina orain konfiantza

guzia hartu duelarik, eguerdi guziz Posada jate-txeko atarirat gaten da zuzen zuzena bazkaltzera. Ikusten ahal duzuen bezala zakur hunek zozotik ez dauka deusik, eta nahiago du "a la carta" jan.

Lehen bataioa

Gan den igandean baitaiatua izan zen Juan Luis Olhagarai. Eta hau, urtean zehar eman dugun berri haundienetarikoa da, batez ere aurtan Juan Luis sortu (eta sortuko) den haur



bakarra delakoz. Penagarrria da ikustea urtetik urtera nola hustutzen den. Az-

ken hauetan, 6-7 heriotz eta sortze bat urtearen buruan. Ze martxa!

ZUNZARREN
Gestoria

• Allianz Ras
Aseguruak

• Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

Etxetik mugitu gabe ardoa
erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.
AZPILKUETA

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Esquisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

FZ
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak
Zure argazkiak berehala
errebelatuak eta gainera
profesionalen kalitate eta
kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

URDAZUBI

Pilarika egunean gipuzkoar bisitari pila herriñ

ALIZIA OLAIZOLA

Urtero bezala, 11etan meza nagusia izan zen eta igandean, ameriketan dagoen apaiz batek eman zuen meza jendetsua.

Udazkeneko Jira Bira

Ekitaldi hauen barnean, Urdazubin bi ekitaldi izan ditugu, lehen urriaren 13an goizeko 12etan, Ortazar dantza taldeak eskeinia. Bigarrena, urriaren 19an arratseko 9,30etan, Ave Maria akordeoi orkestrarekin.



Bi laborari iratzea balotatzen

Euskara klaseak IKArekin

Laister hasiko dira as-

telehen eta ortzegunetan egunean 3 orduz; atsaldeko 6etatik 9ak artio. Ez

dago arras segur, ez bait dute oraindik tokirik klaseak emateko, udalak erran artio. Baliteke hau irakurtzerakoan, klaseak hasiak izaita.

Jantzigintza ikastaroa urriaren 15ean hasi zen 20ren bat emakumerekin. iaz bezala Herriko Etxean.

Laborariak iratzetan, sasoina baita. Ez omen dira arras honduak euria dela eta. Holakoak entzuten dire bederen! Gehienek metak egiten dituzte eta bat edo bertzek balotak



KAMAMILA DENDA NATURISTA

- * Mediku kontsulta naturista
- * Sauna (ordua eskatuz) eta masajista

Merkado Errepidea, 2. Tfnoa:451 528 - DONEZTEBE



HAUR JANTZIAK OINETAKOAK ETXERAKO ZAPATILAK

San Esteban 37, Tfnoa: 631063 - BERA

Zure publizitatea 4.600 etxetara zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa HAMABOSTEKARIA

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

ESTHER

LORADENDA

* Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu

Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko anténak ere paratzen ditugu



UNION CONTACTS LOISIRS

ZURE GIZA HARREMANETARAKO AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA

- ♥ Bakarrik zaude?
- ♥ Zergatik?
- ♥ Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?
- ♥ Familia bat egin nahi baduzu...
- ♦ Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.
- ♦ Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.
- ♦ UCLkin zorientauna lortuko duzu! Animatu!

EZKONTZAK

Martin Mikelarena Jaunenea eta **Arantxa Bengoetxea Agerebere**, Saldias eta Erreterikoa, Abuztuaren 3an.

Anselmo Mayordomo Martin eta **M^a Carmen Irigoien Ubiria**, Bera eta Iruñeakoa, irailaren 7an.

Pampi Bermau eta **Odile Etcheverry**, Sarakoak, Urriaren 11an.

Javier Sancho eta **Beatriz Aranzabal**, Sarakoak, Urriaren 12an.

Luis Mari Costas Sistiaga eta **M^a Angeles Etxegoien Perurena**, Pasaia eta Goizuetakoa, Irailaren 28an.

Jose Ramon Martin Retegi eta **Nekane Goia Telletxea**, Bera eta Lesakakoa, Urriaren 12an.

Juan Fermin Grazena Aldaia eta **Pili Marino Velasco**, Eratsun eta Leringoa, Urriaren 12an.

Jose Ignacio Olazar Apeztegia eta **Maite Mariezkurrena Ibarra**, Elgorriagakoak, Urriaren 12an.

Ignacio Agerrea Almenar eta **Begoña Jaurena Azkarraga**, NARBARTE eta Iruñekoak, irailaren 7an.

JAIOTZAK

Iker Telletxea Anzizar, Lesakan, Urriaren 5ean.

Ana Huizi Manterola, Goizuetan, Irailaren 21ean.

Leire Zabaleta Telletxea, Leitzan, Urriaren 7an.

Jokin Almandoz Erregerena, Iturenen, Urriaren 11an.

Amalur Arregi Oteiza, NARBARTEN, irailaren 13an.

Julen Iriarte Irazoki, NARBARTEN, Urriaren 6an.

HERIOTZAK

Fermina Errandonea, Saran, Urriaren 1ean.

Itziar Etxeberria Salaberria, Goizuetan, Urriaren 15ean, 31 urte.

Ignacio Tolosa Iturralde, Beran, Irailaren 5ean, 87 urte.

Manuel Altugarai Arburua, Lesakan, Urriaren 7an, 80 urte.

Josefa Errazkin Otxoteko, Lesakan, Urriaren 11an, 80 urte.

Emilio Altugarai Irisarri, Lesakan, Urriaren 8an, 87 urte.

Domingo Berasain Arregi, Leitzan, Urriaren 7an, 85 urte.

Esperanza Agirre Lairez, Etxalarren, Urriaren 5ean, 81 urte.

Klaudio Berrueta Iparragirre, Etxalarren, Urriaren 7an, 84 urte.



AZALEA

Loradenda

▼ **Domi Saindurako:**

✿ Lore moztuetan eta landaretan eskeintza handia

✿ Zentroak aukeran

Altzate 26, Tfnoa: 63 11 21 - **BERA**



LORA DENDA

TXIRULA
Bittiria LESAKA



DOMI SAINDURAKO ESKEINTZA BEREZIA

Mota guzietako loreak zentroak, sortak, koroiak, e. a.
Zentroen erakusketa ikus dezakezue hobe aukeratzeko

Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dizuegu

Aurrekontua eskatu **konpromisorik** gabe

Bittiria karrika, Tfnoa: 62 75 42 - **LESAKA**

Sarako arnogintza: Belaunaldiz belaunaldi pasatutako ohidura zaharra

Egun, hamar baserritan banatuak 5.000 bat mahatsondo daude

«Euskalerrria, ogi eta ardoz urri sagarondoez ugari» dio esaera zahar batek. Hala ere, ez da hori Saratarren kasua, sagardoa baino gehiago ezagutu izan bait da bertako arnoa. Gaur egun ere 10 baserritan jarraitzen dute ohitura zahar honekin, arbasoen irakaspenei jarraituz. Mahatsa biltzeko garaia dela eta bertara hurbildu gara, prozesu osoaren berri jakiteko.



Arnogintzak istorio luzea du Saran. Munduko bigarren gerla aintzinetik ere mahasti aunitz omen zeuden Saran. Gerla garaian berriz, arrazionamendua zela eta, Sarako baserri guztietan 200, 300 eta 400 mahatsondo ere bazeuden, bertan arnoa egiteko. Lehen leku idor, aldapatsu eta harritsuenetan landatzen ziren mahatsak (*“harriak omen du izerdia”* diote baserritarrek), lur hoberenak bertze zer eginetarako utziz.


Orduan, taneta xuria eta beltza motetako mahatsa izaten zen. Egun, zebela mahatsa erabiltzen da.

Otsaila aldera, adar kimatzea

Mahatsaren eta beraz, arnoaren prozesua Otsaila aldean hasten da. Garai horretan (*“martxoan berantetik, berandu kimatuz gero izerdia galtzen baitu”*), adarrak kimatu behar zaizkio mahastiari. Kimatutako adar politenak hartu eta landatu egin behar dira hurrengo urteetarako. Irulegitik ere erosten dire ondo txertatuak.

Nahiz eta gaur egun, kasu haundiegirik ez egin, zaharrenen erranetan hirlargia beherapenean da goenean egin behar da adar

—“
Mahatsa, bildu ondoren xehatzeko makinan ttikitu egiten da pipan (barrikan) sartu aintzin. Pipan aste bat inguru egon behar du mahatsak egosten”



kimatzea. Arnogileen ustez, mahatsondoa honela gelditu behar da, adarrak kimatu ondoren; Zangotik

edo enborretik bi adarxka bakarrik atera daitezke eta adarxka bakoitzetik, gehienez lau - bortsz begi utzi

behar dira.

Gaitzaren kontrako hautsa

Mahastiak zaintzeko, hostoa ateratzen hasten denean (apirila aldera), «berdatea» edo «mitriola» izenez ezaguna den hautsa eman behar zaio, baita sufrea ere, gorbelen gaitza ez hartzeko. Hautsa laurbortz aldiz eman behar da (abuztuaren hasera arte, *“San Esteban inguruan mahatsa ontzen hasten baita”*). Eguraldia idorra baldin bada, guttiagotan ematea aski izan ohi da.

Soberan dituen hostoak ere kendu behar zaizkio, mahats aleak eguzkia eta ihintza har dezan. Lan horretan batzuk ekaina aldera hasten dira, baina bertze batzuren ustez, *“Uztailaren erdialdetik goiti egin behar da, aintzinetik egiten bada itsuski gelditzen baitira adarrak”*. Abuztu aldera ere kendu behar dira soberan dauden hostoak.

Mahatsa bildu, arnoa egin

Udazkenaren haseran, mahatsa bildu egin behar da, *“idorxko ari denean”*. Saskitan bildu ondoren, xehatzeko makinan nahi den neurrian ttikitzen da mahatsa. Ondoren, pipetan (barriketan) sartu eta bertan irakiten uzten da. Ordu batzuetara hasten da egosten eta gehienez aste baten egosten da *“eguraldiaren arabera”*.

Nahi izanez gero, azukrea ere ematen zaio,

“Etxeko arnoa eskeintzea plazer bat da”

Berez arnoa egitea ez da lan nekosoa, baino ez da ere beharrezko gauza bat. Amodio eta sentimendu kontua da gehiago; gurasoengandik eta gurasoen gurasoengandik ikasitako zerbait da. Duela 30 bat urte hasi zen nere aita egiten xoxa batekin, eta aita hildakoan, nik hartu nuen segida. Etxean, 350 bat ondo ditugu eta etxean edaten dugu egiten dugun arno guztia, ez baita aunitz. Kontent izaiten zera zure arnoarekin, zuk

egindakoa baita.

Oraingo gazteentzat berriz, ez da lan interesantea eta ez dira lan honi atxikitzen. Dena esku lana da; behar duzu eskuz moztu, eskuz lotu, dena eskuz. Denbora joaitea da



Mixel Gerendiain
Bottoinenea etxekoa

beraientzat arnoa egiten hastea, baina ez lan nekosoa delakotz.

Mahastietan, bertze baratzekotan baino gehiago nabaritzen dira urte onak eta urte txarrak.

Mahatsa ona izaiteko aintzineko erran bat badago: *“Mahatsa besotik atera behar du eta ez mandotik, mandoak ez baitu umerik egiten”*. Mahatsa, adarretatik eta ez zangotik atera behar dela, alegia.

“*Pipetan gelditzen den kraspa, dolaretan tinkatu eta tinkakina izenez ezaguna den likido lodixka ateratzen da. Hau berez ateratzen den arno garbiarekin nahasi behar omen da”*



alkohola gehiago har dezan, *“100 pintetako (litro) kilo bat azukre, guti goiti behiti”*. Aste bat inguru pipan pasatuta sortzen den arnoa barrikara pasatzen da eta bi hilabetez pausatzen utzi behar da. Pipan gelditzen den kraspa edo ma-

hats ondarrak dolarean estutu edo tinkatu eta *“tinkakina”* bezala ezagutzen den likidoa ateratzen da, nahasiagoa, ez berez sortzen den arnoa bezain garbia. Batzuren ustez, arno garbia eta tinkakina nahasi behar dira.

Azkenik, arnoa edateko prest dago. Egun, baserrietan, 200 eta 600 pinta arno artean egiten dituzte urtearen arabera *“etxean edateko eta bisitan etorritako lagunei eskeintzeko bertze”*.

AITOR AROZENA

Bittori Telletxea: “Lurraren Eguna, beratar guziak hebena bezala hartzen duten besta da gaur”

Urriaren 27rako Gure Txokoak antolatua, Udal eta ikastetxeetako laguntzarekin


“...Beratarrak holakoak dira, gauza berriak antolatzeko prime-rakoak...”

Nork ez du aditu Bortzirietan gisa honetako komentarioren bat noizpait!

Nolanahi ere, ez gara gu sartuko, ez horixe, herri batekoen gauza onak neurririk gabe laudatzen, horrela, bertzerik gabe, inguruan, bertze mailako ahaleginik existituko ez balitz bezala. Bakoitzari berea zor zaio. Hala diote.

Dena dela, bosgarren edizioa beteko duen ekitaldiak, urtero urriaren laugarren igandean ospatzen denak, lortu du hasiera-hasieratik herritarren partehartzea. Hastekoz, bere barnean ia-ia Berako familia guzietako lagun bat edo bertze sozio duen Gure Txokoa Elkarte delako ospakizunaren antolaketa bere gain hartu duena eta urtez urte, instituzio edo erakunde gehiagoren laguntza bildu duelako horretan. Alde guzi horiek elkartzeak posible egin du, gaur inoiz baino gehiago, oraindik urtez gaztea den ospakizuna herri osora normaltasunez zabaltzea. Eta

guzi honetaz solasteko, hasiera-hasieratik Lurraren Eguna antolatzeko ez ezik Berako kultur mobidetan ere parte-hartze luze eta intentsoa duen Bittori Telletxearengana jo dugu.



“Berak badu kapazidaderik bai antolatzeko, baita diru iturririk lortzeko, eta orain, badu azpiegiturarik ere: Kultur Etxea...”

h

onez gero beratarrentzat gauza jakina izanen bada ere, kontaguzu nondik sortu zen horrelako ospakizuna egitearen ideia eta zer bilatuz?

Ba, begira. Ideia Gure Txokoa Elkarteant sortu zen, pentsatuz, karrikakoak eta baserritarrek, guziak

parte hartzeko egunik ez zegoela, bestak eta olerntzeroak kenduta, noski... eta segidan, lehendabiziko urtetik hasita, Berako Eskolako guraso, Bortzirietako Euskaltegi eta Berako gazteen laguntza izan genduen. Hasieratik ere Herriko Etxearen diru-lagun-

tza izan genuen eta geroztik... bertze ikastetxeak ere joan dire sartzen eta bako-txak ahal duen neurrian laguntzen du.

Bertzalde, Lurraren Egunari nortasuna eman diotenak, urtero antolatu diren barazki eta fruitu erakusketa, gasna lehiaketa eta artisauen erakusketa izan dira. Horregatik gogoratu zitzaigun izen hori jartzea egunari: Lurraren Eguna. Gainera barazki eta fruitu erakusketa eta gasna lehiaketa, Bortzirietako jendeari zabaldua da, ez bakarrik beratarrentzat.

Gisa honetako zerbait antolatzerakoan beti erran ohi da, lan egiteko prest dagoen jendea eta dirua behar-beharrezkoak direla. Zenbat jenderen laguntzarekin kontatzen duzue guzia antolatu eta prestatzeko eta zenbateko aurrekontua?


Guzi-guzia antolatu eta prestatzeko hirurogeiren bat pertsonen laguntza dugu eta diru aldetik, milioi erdia nahikoa da, egun horretako aktibitateen artean musika-jaialdiaren kosterik ez bada sartzen. Zertan? ba, bertze gastuen artean, eskulangintza erakusketarako handik eta hemendik ekarritakoei dieta bat eta bazkaria ematen zaie. Baita, gasna lehiaketarako etortzen diren juradoko partaideei ere, gauza bera. Gero, hor daude sariak, herri kirolak eta hainbat gauza...



Artisau erakusketak jende pila biltzen du: bai artisauen aldetik eta baita beraien lanak ikustera (erostera) hurbiltzen direnen aldetik.



Argazkian, iazkoan gasna lehiaketaren juradua sariak zein gasnari eman erabakitzeko lanetan.



Barazki erakusketak ere badu lekuri Lurraren Egunean. Porruak, sagarrak, ilarrak... nahas-mahas mahai gainean.

Bazkaria aipatu duzu eta... badirudi gisa honetako bestetan, herri-bazkaria izaiten dela beti.

Zuek ez al zarete animatzen horretarat?

Bai, hortara goazi, hori lortu nahizkan, baina

oraindik orain, jendea ez da gehiegi animatzen. Berako bestetan eta egiten da herri-bazkaririk eta jendea joaten da. Lurraren Egunean ez gara oraindik auzartzen. Bultzada bat behar da. Jende bat biltzea eta zati hori antolatzea. Hala ere, egiten den bazkaria 130 pertsonentzat egiten da, o sea, bazkari koskorra da. Gainera, herri-bazkaria prestatzeak badu bere problema ere, ez du toki egokirik horretarako. Altxateko frontoia eguraldi ona egiten duenean ez dago gaizki bainan... udazkena da, ia negu aldera, eta eguraldi txarra egiten badu... hormatzen al hiaiz!

Eta bertze gaietara pasatuz, zer eritzia duzu kulturaren inguruko kontuak Beran bizi duen egoeraz?

Urtetan eta urtetan Gure Txokoak hartu du bere gain Udalari edo bertze erakundeek zegokien inizatiba, nahiko kostata halere, Gure Txokoan kirolak lehentasun haundiagoa izan bait du ia beti. Halere, egoera hau pixkanaka-pixkanaka aldatu egin da eta Bera mailan ere, orokorki, gaur bada kapazidaderik bai kultur mailan gauza berriak antolatzeko, baita hauek finantziazteko diru iturriak lortzeko, eta orain, bada azpiegiturarik ere guzi hoiiek leku egokietan aintzineramaterako: Kultur Etxea... Karrikan ere, motibazioa haundiagoa da.

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Mikel Mindegia txapeldun Nafarroako aizkolarien artean

Larretxea eta Nazabalek ere lortu zuten Euskalerriko txapelketarako txartela

Mikel Mindegia, Zubietan bizi den 42 urtetako Ezkurrako semea izan zen txapeldun hilaren 13an Doneztebeko frontoian burututako Nafarroako Aizkolarien txapelketan.

Mindegiak bere lana egiten (lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta 72 ontzako bienbor moztea) 23 minutu eta 43 segundu eman zituen, Donato Larretxea azpitxapeldunak baino 48 segundu guttiago. Hauen ondotik, Floren Nazabal Etxarritarrak bukatu zituen bere lanak, horrela Azaroaren 23an Zumarragan ospatuko den Euskalerriko txapelketarako sailkatuz hiruak.

Laugarrena, Felix Etxeberriaren ordezkari (la-

runbatean, Euskalerriko bigarren mailako txapelketan parte hartu zuen sunbildarrak) etorri zen Manuel Gorriti izan zen eta bosgarren, Antonio Jaunarena zubietarra.

Modu honetan, Mindegiak Nafarroako laugarren txapela eskuratu zuen, adinean goiti doan arren, sasoiaren ez dela gibelera gelditzen erakutsiz. Larretxeak berriz, ezin izan zuen iaz lortutako txapela mantendu, horretarako, azkenaldian izan dituen lesioak ez zutelarik lagundu.

Floren Nazabal gazteak ezin izan zuen hirugarren postua bertzerik lortu, baina argi erakutsi zuen etorkizuna bere eskuetan dagoela.




Mindegiak, Doneztebeko alkatearen eskutik jaso zuen txapela

ONDIKOL



- Mikel Mindegia
- Ezkurrako semea izan zen duela 42 urte
- Zubietan bizi da
- 4. aldiz Nafarroako txapeldun
- 10 aldiz Euskalerriko txapeldun



Nafarroako Aizkolaria txapelketa

600 ikusle
Doneztebeko frontoian

Mikel Mindegia (Zubieta)	Donato Larretxea (Bera)	Floren Nazabal (Etxarri-Aranatz)	Manuel Gorriti (Uhartea Arakil)	Antonio Jaunarena (Zubieta)
23 minutu 43 sg.	24 minutu 31 sg.	25 minutu 35 sg.	29 minutu 16 sg.	31 minutu 52 sg.

Futbola

Baztan gogor hasi da Nafarroako Preferente mailan



Baztan futbol taldeak gogor hasi du aurtengo denboraldia Nafarroako preferente edo gorengo mailan. Lerro hauek idaz-

terakoan bosgarrena dago sailkapenean, 8 puntu eta 2 positiboz. Ez da nolanhiko hasiera, taldearen gaztetasuna kontutan hartuz.

Futbol-sala

Bortziriak F. S. taldeak ez du nabaritu maila aldaketa



Iazkoan denboraldi bikaina egin ondoren Gipuzkoako bigarren mailara igo ziren Bortziriak Futbol Sala taldeko mutilak.

Maila igotzeak ez dirudi nabaritu duten, izan ere partidoak irabaziz eta sailkapenean aurreko postuetan bait daude.



Bortziriak nesken futbol taldea mottel xamar hasi da

Oraindik esperientzia falta nabaritzen zaie "Zikiro" entrenatzaile lesakarraren neskei, oraindik ez bait dute garaipenik lortu. Baina kontutan aurtun hasi direla futbol haundian jokatzen. Honako hauek osatzen dute taldea: Gorane Artieda, Silvia Ibargoiien (porterrak); Mainer Gorria, Viki

Arozena, Amaia Larralde, Ainhoa Irazoki, Idoia Teletxea (atzelariak); Jaione Ruiz, Reyes Osua, Jaione Lazkano, Ana Larretxea, Sonia Iturria, Estitxu Fernandez, Amaia Bikuña, Sonia Salgado (erdilariak); Maite Iturralde, Pilar Martikorena, Begoña Vazquez, Mireia Martinez, Juana Aleman eta Aitziber Gutierrez (aurrelariak).

Hamabostaldiko jokaldiak



Antonio Jaunarena Zubietar aizkolaria. Nahiz eta Mindegiak irabazi Nafarroako txapelketa, gogo haundia erakutsi zuen Jaunarenak, bere lanaren bukaera arte saiaturaz. Jendeak txalo ugariz eskertu zion.



Beti Gazte futbol taldeak. Bai Preferentekoak, bai jubenilak eta bai kadeteak azken postuan daude leerro hauek idazterakoan. Baina oraindik liga luzea da, eta ez da nola hasten den, nola bukatzen den baizik.

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

• **Beran** alkilatzekeo pisua behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

• **Piso** bat alokatu nahi dugu Lesakan edo inguruan. Tfnoa: 580541 (gauzez).

• **Beran baserri**, borda edo pisu bat alkilatuko genuke. Tfnoa: 631136.

• **Oieregin** pisu zabala eta primerako materialekin egina, berria. Garajearekin. Tfnoa: 452048.

▼ Lana

• **Neska gazte batek** Lesaka edo inguruan lan eginen luke adintuak zaintzen edo bertze zerbaite-tan. Esperientzia. Baita Iruñan orduka. 450528.

• **Baztan** inguruan haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan eginen nuke. Tfnoa: 58 04 71.

• **Iruñean** euskarazko klase partikularrak emanen nituzke OHoko haurrei. EGA titulua dut. Tfnoa: 130200 (Amaia).

• **Iruñean** arratsaldez lan egingo nuke, haurrak, etxea, garbiketak, etab. Tfnoa: 130200 (Amaia).

▼ Denetarik

• **Ekiptoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolari-entzatzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Saski Zar** ostatua traspasoan edo salgai. Tfnoa: 63 1188.

• **Lesakan**, lokal polita, berria, alaia eta herriaren erdian traspasatzen da. 35 m² ditu, bi partetan, prezio interesgarrian. Zure ilusio polit hori errealitate bihurtu ezazu, etorkizunari begira. Deitu 637410ra.

• **Frantses**, ingles eta aleman klaseak. Tfnoa: 45 15 65.

• **Kartera** bat etxeko eta kotxeko giltzekin agertu da Igantzin. Tfnoa: 634071.

• **Labadora** bat behar dugu, bigarren eskukoa. Tfnoa: 637796.

• **Beratik** Arantzara gindoazela, galdu zitzaigun Mendi-bizikletak (kilometroak neurtzeko, etab) zeukan aparailua (Micro-

pacer III-6 funtzio beltza eta gorria). Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez, 630332 tfnora.

▼ Salerosketak

• **Bigarren** eskuko karrera txirrindula erosiko nuke. Ongi badago 35.000 pagatuko nuke. 637821.

• **Bigarren** eskuko bi-bolin japoniarra salgai. 3/4 neurrikoa eta 15.000 pzatan. Tfnoa: 631499.

• **Kafetera** automatikoa salgai Goizuetan. Ia berria. Tfnoa: 51 40 64.

• **Pastor** aleman txakurkumeak salgai. Pedrigirekin. Tfnoa: 514061.

• **Bi siloi** egoera oso onean salgai. 10.000 pzta. bakoitzak. Tfnoa: 51 04 92.

• **Berako Musika Eskolak**, bigarren eskuko botoiezko akordeoiak erosiko lituzke. Tfnoa: 631205 (4etatik 9etara).

• **R-6** bat (NA-3620-F) salgai. Tfnoa: 450477.

• **Belarra** igotzeko makina elektrikoa eta ordeñadora salgai. 615070.

• **Elizondotik** Urdazubira, 15.000 bat m²ko lur saila erosiko nuke. 452048.

• **Akordeioa** salgai. Melodia, 120 bajokoa. Tfnoa: 453060.

• **Akordeioa** salgai, Zero Sette marka, 120 bajo ditu erreduzitua. Oso berria da. 510575 (Milagros).

▼ Harremanak

• **JTM** zuk idazten ez didazunez nik egingo ditut. Maite zaitut bihotzez. Inoiz ez bukatzea espero dut, zeren gertatu zaidan hoberena zara. Muxu bero bat. Amaia.

• **Oitzko** Ugutzentzat, zorionak aita eta amaren partez.

• **Goizuetako** Maite Perurenari. Herriko neskarik politena zera. Zutaz maitemindurik nago. Ez begiratu kanpoko mutilei. Goizuetar mutil bat.

• **Ezkurrako** Migel: Mutil oso guapoa zara. Lastima niri ez begiratzea. Askok pentsatzen dut zutan. Bi musu zure ezpainetan. Leitza.

• **Elizondoko** Jon Lezeta. Zuk jakin gabe zuri begira egoten naiz. Begira zure ingurura, ziur hor na-goela. Tauro bat.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ARROZ BERRI



SAME

TRAKTOREAK

POTENTZIA
ETA
TEKNOLOGIA

EUROPAN SARITUENAK, ORAIN HEMEN ERE



Reconocimiento SIMA 90
al sistema
R.E.I.
Medalla de Oro



Reconocimiento EIMA 89
a los sistemas
R.E.I., S.B.A.
y Cabina design.



Diploma
AGRITECHNICA 89
a la innovación tecnológica
por el sistema R.E.I.



Diploma ROYAL
SHOW-ROBERT
BARROW-90
al sistema R.E.I.



Novedad Técnica
SOBRESALIENTE
al Sistema de Regulación
Electrónica de la Inyección
FIMA'91

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021 - IRURITA

VALPADANA

TRAKTORE ETA SEGADORAK
TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA TRINKOAK



- ✓ 20 HPTIK 80 HP BITARTEKOAK
- ✓ ENBRAGE BIKOITZA
- ✓ BELOZIDADE SINKRONIZATUAK

☛ STHIL, JON SERED MOTOZERRAK, DESBROZADORAK
☛ ALFA SEGADORAK

☛ KONPONKETA ETA SALMENTA TAILERRA

GUILLERMO TXOPERENA, TFNOA: (948) 63 79 95 - **IGANTZI**


JAIONE APALATEGI
ZALDUNEA
31760 ETXALAR
Franqueo Concertado 34/79

Nafarroako Caja Rural-ak doblea eskeintzen dizu



Eremu berriak irabaziz

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako
Iturria anaiak

Irunen, zure bainurako
behar dituzun osagarri
guziak: griferiak,
manparak, mobleak,
gres eta zeramikak

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN